

XEDAPEN OROKORRAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3868

175/2011 DEKRETUA, uztailaren 26koa, Jaurlearitza Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.

Urtarrilaren 12ko 1/2010 Dekretuak arautzen du Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala (2010eko urtarrilaren 19ko EHAA, 11. zk.; dekretu horren hutsen zuzenketa 2010eko maiatzaren 12ko EHAAn, 87. zenbakian, argitaratu zen). Bestalde, martxoaren 22ko 39/2011 Dekretuak aldatu egin zuen dekretu hori (2011ko martxoaren 25eko EHAA, 59. zk.).

Dekretu honek bi aldaketa hauek dakartza: batetik, Euskadiren Bruselako Ordezkaritzaren deitura berria, zeina hemendik aurrera Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza izango baita, egoitza Bruselan izango duelarik, eta bestetik, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzaren eskumenen artean espresuki sartzea Euskadin dauden beste autonomia erkidegoetako eskualde-etxeekin eta elkarten federazioekin elkarrizketak izateko eta horiei babes instituzionala emateko eskumena.

Alde batetik, martxoaren 22ko 39/2011 Dekretuaren bidez Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren berrantolaketa funtzionala burutu zen, zati batean bada ere, Euskadiren Bruselako Ordezkaritzari eta aurreko Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanak Koordinatzeko Zuzendaritzari esleitutako funtzioak zehaztasun gehiagorekin mugatu baitzituen. Orduan, Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza izatera pasatu zen zuzendaritza hori. Euskadiren Bruselako Ordezkaritzak Europar Batasunarekin zerikusia daukaten hainbat eta hainbat funtzio bereganatu izanak eragin du Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza izatera pasatzea, hain zuzen ere hobeto identifikatu ahal izateko.

Bestalde, aipatu urtarrilaren 12ko 1/2010 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Herritarren Partaidetzarako eta Dokumentazioko Idazkaritza Nagusiari dagokio Lehendakariari laguntzea Jaurlearitza interes orokorreko gaiak euskal gizarteari jakinarazten eta, bereziki, euskal gizartearen balio demokratikoen inguruko eztabaida publikoa sustatzen, bai eta herritarren partaidetzarako eta erakundeek horien proposamenei erantzuteko bideak bultzatzen ere.

Herritarren Partaidetzarako eta Dokumentazioko Idazkaritza Nagusiari atxikita dago Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza, eta, horren eginkizunen artean dago herritarren partaidetza-bideak ezarri eta sustatzea, zuzenean zein elkarte eta federazio bidez.

Eskualde-etxeak eta Euskadin dauden beste autonomia erkidegoetako elkarte-federazioak Estatu espainoleko hainbat tokietatik Euskadira iritsi diren herritarren parte-hartzea dinamizatu eta sustatzen dituzten erakundeak izanik, bidezkoa da Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari esleitutako eskumenen artean Eusko Jaurlearitza eta erakunde horien arteko harremanei dagokiena berariaz jasotzea.

Ondorioz, eta Jaurlearitza buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.c) artikulua eta maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 4. artikulua ematen dizkidaten eskumenen arabera, eta Jaurlearitza Kontseiluak 2011ko uztailaren 26ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.– Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2010 Dekretuaren 2. artikuluko –«Egitura»– 1.3 paragrafoko c) idatzi-zatia aldatzen da, zeina aurrentzanean honela idatzita geratuko baita:

«c) Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza.»

Bigarren artikulua.– Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2010 Dekretuaren 18. artikuluko titulua eta 1. paragrafoa aldatzen dira, zeinak aurrentzanean honela idatzita geratuko baitira:

«18. artikulua.– Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza.

1.– Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzaren egoitza Bruselan dago, eta hierarkikoki Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren menpe egongo da zuzen-zuzenean. Europar Batasuneko erakundeetan Euskal Autonomia Erkidegoaren interesak ordezkatu, defenditu eta sustatzen dituen erakundea da, eta helburu horiek lortzeko, ondoren zehazten diren eginkizunak betetzen ditu».

Hirugarren artikulua.– Jaurlaritzaren-Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 12ko 1/2010 Dekretuaren 18. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan Euskadiren Bruselako Ordezkaritzari dagokionez egiten diren aipamenak, Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzari egindakotzat hartuko dira.

Laugarren artikulua.– Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2010 Dekretuaren 22. artikuluari –Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari buruzkoari– e) idatzi-zatia gehitzen zaio, zeina aurrentzanean honela idatzita geratuko baita:

«e) Eskualde-etxeekin eta Euskadin egoitza duten beste autonomia erkidegoetako eskualde-elkarteen federazioekin elkarrizketak izatea eta baita ere horiei guztiei babes instituzionala ematea.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 26an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.